



ZERAIN

Etzi hasiko da sagardotegi denboraldia Oiharteko txotxaren irekierarekin

Otatza sagardotegiak datorren astean ekingo dio aurtengoari. Goierriko Bertso Eskolako bertsolari gazteak izango dira gonbidatu larunbatean Oiharten

10.01.13 - 00:14 - ION MUÑOZ | ZERAIN.

Larunbatean, urtarilaren 12an, hasiko da aurtengo sagardotegi denboraldia Zerain aldean. Iluntzeko 8:30etan irekiko ditu ateak eta kupelak Oiharte sagardotegiak, eta umore ona lagun, sagardo berria probatu eta lagunartean ondo pasatzeko aukerarik ez da faltako. Otatza sagardotegiak, berriz, datorren astean hasiko du denboraldia.

Kupela irekierako aurtengo festan, Goierriko Bertso Eskolako bertsolari gazteak izango dira gonbidatu Oiharte aldean. Sagardotegiko plaza naturalean, sagardo berriaren inspirazioz eta herriko tritilari gazteen laguntzaz, Goierriko bertsolari gazteek jarriko dute festa.

Oiharte aldeko kupelak bertako sagarrarekin egindako zukuz bete dituzte udazkenean. Eta Haritzek eta Maitek esan digutenez «oraindik berri xamarra egon arren, sagardo polita dator» aurtan. Gainera, sagardotegian ere badituzte hainbat nobedade: sagardo ekologiko zertifikatua ekoizten hasi dira, eta jangelan ere apaingarri moduan mural ikusgarri bat ezarri dute denboraldi berrirako. Horrez gain, Zeraingo sagardoa edozein lekutara eraman ahal izateko Oiharteko 'txotx mobila' prestatu dute, festa eta ospakizunetarako kupela eramangarria. Berrikuntzaren ildotik dator beraz, denboraldi berria Oiharte aldean.

Baina berrikuntzarik behar ez duena festarako gogoa eta umorea da. Eta horretatik ez da faltako larunbatean iluntzeko 8:30etatik aurrera Oiharte aldean. Oraindik badago lekua hala nahi duenak afaritarako erreserba egiteko. Denboraldia hasi da. Txotx!

TAGS RELACIONADOS

etzi, hasiko, sagardotegi, denboraldia, oiharteko, txotxaren, irekierarekin

Publicidad

Interpreta La Bolsa

Curso de Bolsa gratis! Entra en XTB y los tendrás a tu alcance sin esperas!

www.xtb.es/informes

Llévate este TV LED

Solo para nuevos clientes por Internet por domiciliar tu nómina en "la Caixa"

www.lacaixa.es

Comparador Seguros Coche

Compara hasta 30 seguros de coche y AHORRA hasta un 50% en apenas 3 min. ¡Calcula precios!


www.acierto.com

Nuevo iPhone 5 con ORANGE

Si eres Autónomo o PYME, ven a Orange y llévate el nuevo iPhone 5 desde 0€. Contrata aquí

Orange-empresas.es/iPhone5

pn



Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con  

Regístrate



Escribe tu comentario aquí.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por los más recientes primero ▼

☐ Suscríbete por e-mail ☐ RSS

Powered by  SARENET

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª.C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:
Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)

[El Correo](#)
[Elnotedecastilla.es](#)
[Elcomercio.es](#)
[SUR.es](#)
[Qué.es](#)
[La Voz Digital](#)
[ABC Punto Radio](#)
[hoyCinema](#)
[Infoempleo](#)
[Autocasion](#)
[Mujerhoy](#)
[Vadejuegos](#)
[Grada360](#)

[La Rioja.com](#)
[DiarioVasco.com](#)
[Ideal digital](#)
[Las Provincias](#)
[El Diario Montañés](#)
[Laverdad.es](#)
[Finanzas](#)
[hoyMotor](#)
[Guía TV](#)
[11870.com](#)
[Pisos.com](#)
[Avanzaentucarrera.com](#)
[m.diariiovasco.com](#)

